



IBARRAKO UDALA  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

2019KPOL0009

**142/2019 ALKATE DEKRETUA**  
**KULTUR ETXEKO IKASTAROEN PREZIO PUBLIKOAREN 2018-2019 IKASTURTEKO 2.**  
**ALDIAREN BEHIN BETIKO ERROLDA ONARTZEKO**

2018-2019 ikasturteko 2.epeko kultur etxeiko ikastaroen prezio publikoari dagokion errolda fiskalaren berri ematea; berau Udal Diru-Bilketa Zerbitzuak egin du eta 4.617,64€ da

2018-2019 ikasturteko 2.epeko kultur etxeiko ikastaroen prezio publikoari dagokion errolda fiskala jendaurrean jartzen da, uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dutenak, 16 artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Alkatetza honek apirilaren 2ko 7/85 Legeak, Tokiko Erregimeneko Oinarri Arautzaileak, 21.1. artikuluan, Tokiko Erregimenaren gaian indarrean dauden Lege Xedapenen Testu Bateratua onesten duenak, 24. artikuluan eta Tokiko Erakundeen Antolamenduaren, Funtzionamenduaren eta Erregimen Juridikoaren Arautegia onesten duenak, 41. artikuluan ematen dituen ahalmenak erabiliz, honakoa

**EBAZTEN DU**

**LEHENA.**- 2018-2019 ikasturteko 2.epeko kultu etxeiko ikastaroen prezio publikoari dagokion errolda fiskala onartzea. Zenbatekoa 4.617,64€ da, 2019/78 karguan jasotakoaren arabera, eta 67 ordainagirik osatzen dute.

**BIGARRENA.**- Jendaurrean jartzeko izapidearekin jarraitzea hilabetez Udaleko iragarki taulan argitaratuz, interesatuek dagozkien alegazio eta aldaketak aurkez ditzan.

**HIRUGARRENA.**- Udalbatzak gauzatzen duen hurrengo ohiko bilkuran Dekretu honen berri ematea.

Ibarra, 2019ko apirilaren 10a

IDAZKARIA

Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave



ALKATEA

Mikel Agirrezabala Ezkurdia